



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2013/2014 denboraldia

16 ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XIX. EMAKUMEZKOEN KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin batean, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo arauak jarraiki :

1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Izena eman duten hamazazpi talde hartuko dute parte, hurrengo eran bananduta

A) BIGARREN NAZIONAL MAILA

Abanto Club, Añorga K.K.E., Athletic Club "B", Aurrera Vitoria C.D., Pauldarrak F.K.T. eta San Ignacio S.D.

B) EUSKAL LIGA

Arratia C.D., Beasain S.D., Berrio Otxoa A.D., Bizkerre Club, Eibar S.D., Erandio Betiko Neskak F.K.E., Gasteizko Neskak C.D., Mariño C.D., Peña Ath. Santurtzi C.F., Tolosa C.F. y Zarautz K.E.

2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da: aurrekoa eta finala.

1. Aurretiazko Fasea (osteguna 1 eta maiatzak 4)

Parte hartuko dute, partidu bikoitzaren arabera, maiatzaren 1ean (asteazkena) joanekoan eta maiatzaren 4an itzulerakoan, B) taldeko bi klubek, talde gainerakoak libre geratuz.

Bi taldeak zozketaren bidez bikoteka elkartuko dira.

Garailea, fase honetatik libre geratu direnekin batera, txapelketaren amaiera fasean hartuko dute parte.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2. Amaiera Fasea

Final-zortzirenek, final-laurdenek eta finalaurrekoek eratuko dute, hiru kasuetan partidu bikoitzaren arabera; eta finala partidu bakarraren arabera.

-Final-zortzirenak (maiatzak 18 eta 25)

Txapelketaren aurretiazko fasea gainditu zuen taldea eta honetatik libre geratutako hamabost hartuko dute parte, zozketaren arabera bikoteka elkartuta, A) taldeko ekipoak elkarren aurka ez jokatzearen baldintza bakarrarekin, posible den heinean..

Joko-eremuen hurrenkera ondorengo arauen arabera ezarriko da eta taldeak kategoria ezberdinetakoak izango dira, joaneko partidua beheragokoa militatzen duenaren instalaziotan lehiatuko da, kategoria berdinekoak izaten direnean joko-eremuen hurrenkera boleak ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

- Final-laurdenak (maiatzak 28 (asteazkena) eta ekainak 1)

Final-zortzirenetako zortzi garaileek lehiatuko dute, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera boleak ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

- Finalaurrekoak (ekainak 8 eta 15)

Final-laurdenetako lau garaileek hartuko dute parte, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera boleak ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

Finala

Finalaurrekoen bi irabazleen artean ospatuko da, ekainaren 21ean. Zozketa baten ondoren bi taldeen artean baten futbol zelaian egingo da.

3.- JOKALARIEN ZELAIRAKOTA ETA ARDEZKAKETA

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez bost jokalaria parte hartu behar dute partidaren ihardura osoan zehar. Honetaz gain, bost aldaketa egin daitezke gehienez, zazpi aldagaien artean.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

4.- BERDINKETAK

EFFren Araudi Orokorrek ezarritako moduan desegingo dira berdinketak.

Partidua amaituta, emaitza zeinahi dela ere, penaltiak jaurtiko dira talde bakoitzeko bost derrigorrez, harik eta talde bietako bat irabazle gertatzen den arte. Emaitza hori aintzakotzat hartuko da sailkapen orokorrean izan daitezkeen berdinketak desegiteko azken tresna moduan.

Finala partiduan berdinketa izan ezker, penalti puntutik jaurtiketa serieak egingo dira.

5.- ARBITROAK

Aurreiazko fasea, final zortzirenak eta final laurdenak, Erregional Goreneko arbitroak hautatuko dira partidak zuzentzeko, eta partida jokatzeko den lurraldeko federazioko kide izan beharko dute.

Ordainagiria Emakumezkoen Euskal Liga mailako txapelketakoaren zenbateko berekoa izango da.


Final aurrekoak eta Finala, Nazional mailako arbitroak hautatuko dira partidua zuzentzeko, eta ordainagiria 124€tako bakarra izango da.

6.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. (Fax 94-473.22.21 P. Elektronikoa webmaster@eff-fvf.org edo EFF web orrian)

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partidua hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00tara eta arratsaldeko 15.30tik 18.30ra. Epe honetatik kanpo hasiko dira partidua, klubaren arteko akordioarekin, Honetaz gain, astean zehar jokatzeko diren partidak asteko ordu epea 18.00tik 19.30ra izango da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

7.- GARAIKURRA

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

Hogeitabost doluminak talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

8.- DISZIPLINA BATZORDEA

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroaren aktak, Diziplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2014eko apirilaren 1ean



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General